



# ANAITASUNA

AÑO II—Núm. 22

Suplemento a la Hoja  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Abril 1955

## UDABARRIA

Asi da udabarria. Orain arte ilda legez egon dan lurra, beste bizitza batera jaioten asi da. Oraindiño orain billosik ikusi ditugun arbolak, soñieko barriz jazten asi dira. Mendi ton-torretako edurra, urtu zarra da. Neguko otza, eriotzearen arnasea, pausu astunez, datorren urteraino joan da. Igesi joan da. Udabarriaren, bizitza barriaren igesi.

Sasoian onetan, geuk-bere indar eragille bat sentietan dogu gure barruan. Joan da garizumea, penitentzia sasoia, gure pekatuen damutasuna beragaz daroala. Joan dira baruak eta bigiliak, egun triste ta illunak. Beste egun alai bat asi da. Aleluia Kristo illen artetik bizitu da. Aleluia Geu-bere, beste bizitza barri batera biztu gara.

Kreaziño osoak egiten daben antzera, udabarrian bizkortu egin bear dogu gure kristiñau bizitzea. Gizona da kreaziño izaki guztien erregea. Utsune aundi bat legoke udabarrian, gizadi osoaren indarbarri dantza onetan gizonak parterik artuko ez baleu.

Zoritxarrez, utsune ori egiatzkoa izan leiteke, nagitasunez naiz gaiztakeriz, kreaziño kontzertu eder onetan euki bear dogun tokia gordetan ez badogu.

Barriztetan ez dan gorputza, il egiten da. Gorputz osasuntsuak, edozein eragingarriri beingoan erantzu-

ten deutso. Erantzupide orretantxe igarten jako, ain zuzen-bere, sano dagoana. Era berean, indarbarrituen ez dan arimea, gaixotu ta il egiten da. Señale txarra, edozein jazokuntzaren aurrean sor ta gor geratuten danean.

Bizkortasunezko ejenplu galanta emon deuskue lengo astean Belgikako katolikoak. Gobernuak, diru laguntasuna kendu gura izan deutse eskola kato ikoeri. Agintarien uzia jakin dabeneko, erriak kalera urten dau, eta Parlamenturantz zuzendu da, lege kaltegarri orren kontra dagozala erakusteko. Gobernuko poli-ziak, indarrez deseguin dau manifestaziñoa, eta katoliko asko zauritu eta beste asko giltzapean sartu. Egintza onegaz, Belgikako katolikoak mundu guztiaren aurrean erakutsi dabe euren kristiñautasun bizi ta zolia.

Euskaldun katolikoak egingo geunke beste orrenbeste, egokera antzekoan izango bagiña? Ez gabil-tza, ba, aspaldion zerbait motelduta? Biziro sentietan ete dogu gure kristiñautasunaren kontzentzia? Arbinduten ete gara gure errietako erlegiño galdumendiaren aurrean? Ogeigarren gizaldiko kristiñau bizitzeak, eragille ta bizkorra izan bear dau. Urten daigun, ba, gure lo zorrotik; bizkortu gaitazan gure sorgortasunetik. Udabarrian izaki guztiak egiten daben modura. Belgikako katolikoan antzera.



# BIZITZA BARRI

Udabarria gozo biguna,  
Guztiok pozik jarten gaitunal  
Mendi zelaiak loratsu jantzi,  
Txoriak bardin pozez kantari:  
Bizitza barri

Udabarriak oi dau ekarri,  
Gure neke ta lanen pozgarri.

Billosik ziran-mendi zelaiak,  
Udabarrian jantirik danak;  
Eta txoriak, aundi ta txiki,  
Pozez zorutzen danak kantari;  
Baserrietan  
Lugiñak bizkor euren lanetan,  
Azientzako lurak gertetan.

Zugaztietan txoriak pozez  
Euren umeak aziten dabez;  
Zein geiagoka maitasunean  
Dabil baxotxa bere lanean  
Pozez beterik,  
Euren sendiaz maite maïterik,  
Zorioneko direalarik.

Mundu onetako geure bizitzan  
Geienok gabiz oker pentsetan.  
Bakez ta pozez bizi nai dogu,  
Naizta bizitzan oker jokatu.  
Baiña alperrik!  
Auzoarentzat maitasun barik,  
Ez dogu eukiko iñoiz bakerik.

Zorioneko nai dogu izan?  
Txoriak legez ibil gaitezan.  
Alkar arteko ikusi eziñak  
Dakaz munduko arantza miñak.  
Bakez ta pozez  
Bizi nai dogu? Txoriak legez  
Txarrik ez egin besteren kaltez.

BALENTIN ENBEITAK



## MATRIMONIOKO SAKRAMENTUA

Zuzen ala oker dago emen esaten  
dana?

1.—Jainkoak, Paradisuko ortuan  
sortu eban gizonen arteko ezkontzea.

2.—Asieratik bertatik izan da Ma-  
trimonioa, oraingoa lakoa: biren ar-  
tekoa ta ausieziña.

3.—Jainkoak ez dau iñoiz permi-  
tidu poligamia: au da, ez dau iñoiz  
emon bategaz baiño geiagogaz ez-  
kontuteko baimena.


4.—Jesukristok, Matrimonioa sa-  
kramentu egin ebanean, kendu egin  
eban poligamiarako baimena.

5.—Matrimonioa, beste edozeta-  
rako baiño lenago, semeak euki ta  
azteko da.

6.—Matrimonioko Sakramentu-  
ren ministroa, sazerdotea da.

7.—Heretikoak (katolikoak ez di-  
rean kristiñauak), ezkondu arren, ez  
dabe artzen Matrimonioko Sakra-  
mentua.

(Ikusi azkenengo orrialdean)





# Illeko Santua

## Santa Katalina Senakoa

(Bere eguna, aprillaren 30)

Sena deritxon Italiako urian jaio zan Katalina, martiaren 25'ean, 1347 urtean. Bere aita Jakobo Benincasa ta bere ama Lapa izenekoa, ogetabost umeren gurasoak izan zirean. Katalina ogetalaugarrena.

Zazpi urtegaz virginiatasunezko votoa egin eban. Gurasoak, amabi urtegaz ezkondu gura izan eban; baiña berak, konfessorearen kontsejua jarraiturik, bere ule trentzak kris kras ebagi ta burua velo zuri bategaz estali eban. Gurasoak, gogor egiten eutsen erlegiñorako erakusten eban jokereagaitik; eta au dala ta ez dala, amaika naibage sufridu bear izan eban bai guraso ta bai enparadua-kandik.

Amasei urte bete zituanean, Santo Domingoren Irugarren Ordenan sartu zan; eta arrezkero ez eutsan inok galerazo oraziñoan eta mortifikaziñoan, ixiltasunean eta karidadean Kristori jarraituten.

Alako baten, Jaunak Berak agindu eutsan munduan zear joateko, batez-bere Italiako errietara, Fede santuaren argia iziotuten eta Karidadearen garra bizkortuten. Alantxe, Katalina, amasei, amazapi, ogei urteko neskatoa, lotsarik eta bildur barik agertuten zan naiz erregeen jauregietan, naiz Aita Santuen korteetan, zein kardenalen aurrean, zein gobernadoreen etxeetan, gaur mar-

kes baten torrean, biar duke baten gazteluan, batean uri aundi bateko plazan, bestean baserri bateko eleizpean, Evangelioaren libertade santuagaz edonori Egia aurpegira jaurtigi, zein dan euren obligaziñoa esan, gaiztoak onerantza ta onak obarantza eragiteko.

1375 urtean, Jesukristogandik Bere Pasiñoako Zauriak artu zituan. Baiña era berean, Jesukristok gura izan eban Bere serbitzari zintzo onek deabruaren aldetik ikaragarrizko tormentuak igaro izatea bai gorputzean eta bai ariman. Bere gelan sarri askotan fantasmarik itxusienak eta zantarrenak agertuten jakozan, bere begi, belarri ta biotzeko garbitasuna zikindutearren arerioak erazota.

Bein baten, tentaziño loi loi batzuk igarota gerotxuago, Jesus agertu jakon.

— Jauna, nun egon zara — esan eutsan Katalinak— nire tentaziño zikin orreen bitartean?

— Zeure biotzean, Katalina.

— Zu, lirio arteko Bildots ori, ainbeste loikeri artean?

— Bai, ene alabatxu, eta pozik eta gozotasunez beterik, zure sendotasun eta adoreak atsegin aundia emoten eustan-da.

1380 urtean, aprillaren 29'an ilzan Katalina Jaunaren bakean.





# Jakin bga...

## MATRIMONIOKO SAKRAMENTUA

(Bigarren orrialdefik dator)

- 1.—Zuzen.
- 2.—Zuzen.
- 3.—Oker. Testamentu zarrean, Noe Patriarkearen denporan, uiol aundi batek mundua ondatu ebanean, permitidu egin eban Jainkoak poligamia, lurra barrero gizonen ainbat ariñen bete eiten.

4.—Zuzen.

5.—Zuzen.

6.—Oker. Ezkontzen direan andra-gizonak dira Matrimonioko Sakramentuaren ministroak.

7.—Oker. Heretikoak, ondo ezkontzeko intentziñoa euki ezketiño, geiagoko barik sakramentua artzen dabe. Orretarako naikoa da, Jesukristoren benetako Eleizeak aginduten dabena egin gura izatea.

\* \* \*

"Matrimonioko Sakramentuaren graziak bere frutu guztiak emon daizan, bear bearrekoa da senar-emazteak graziak orreri lagundutea, euren obligaziñoak zintzoro betetan dituela.

Aintzat artu beie euren arimetan bizi dan Sakramentuaren graziak. Euren obligaziñoak, gatzak izanarrebere, ardura aundiaz betetan baditue, gero ta geiago sentiduko dabe graziaren indarra.

Eta iñoiz, euren estadu ta bizitzako naibageakaz biozkatuta bizi badira, ez beie galdu adorea. Akordau

beitez San Paulok Timoteo, bere dizipulu maiteari, esan eutsazan berbakaz: Biztu eizu, arren, zeure arima barruan daukozun sakramentuaren graziak. Ez deusku emon Jainkoak bildurrezko espiritua, maitasun eta birtutezkoa baiño."

PIO AMAIKAGARRENAK

## KURUTZEGRAMA N.º 18

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								■
II					■			
III					■			
IV				■	■		■	
V		■	■	■	■			
VI					■			
VII					■			
VIII							■	

**Ezkerretik eskoira:** 1. Gipuzkoako eribat.—2. Berbaz adierazo. Ortze.—3. Ni orain egon. Numerua.—4. San Frantzisko Xabierkoaren gorputza dagoan Indiako erria. Vokal letrea.—5. Vokal letrea. Ukatu gura dogunean esaten dogu.—6. Prononbre posesivoa. Plazu.—7. Modu aretan. Zikin.—8. Denpora otzen sasoi osoa. Konsonante letrea.

**Goitik beera:** 1. Egoten ziñean.—2. Urrun. Buruan daukogu.—3. Abraham Patriarkearen emaztea, Ismaelen ama (atzekoz aurrera). Suak egiten dau (atzekoz aurrera).—4. Leku onetara (atzekoz aurrera). Tarte (atzekoz aurrera).—5. Vokal letrea. Konsonante letrea.—6. Itxura. Letra baten izena.—7. Ordaindu bear dana.—8. Edateko da (atzekoz aurrera). Nor.

Zelm.  
5. U. T.—6. Tatu. Ete.—7. Zor. Epe.—8. Urr.  
2. Asao. Ute.—3. Agarr. Gar.—4. Ona. Ute.—  
8. Neguite. N. Goitik beera: 1. Zengozan.—  
U.—5. U. Ez.—6. Zure. Epe.—7. Alan. lot.—  
rauz.—2. Esan. Aor.—3. Nago. Iru.—4. Goa.  
**AZALPENAK.** Ezkerretik eskoira: 1. Za-